

**JABEA:** ZERUKO ARGIA, S.A.L.  
**LEHENDAKARIA:** Joxe Mari Irazusta.  
**ZUZENDARIA:** Pello Zubiria.  
**Kontseilu Editorialeko Arduraduna:**  
 Baleren Bakaikoa.  
**Erredakzioa:** Arantxa Erasun, Xabier Letona, Juan Joxe Petrikorena, Arritxu Zelaia.  
**Maketazioa:** Berdaitz Goia.  
**Grafismoa:** Aitzol Goikoetxea.  
**Administrazioa:** Marijo Aierza.  
**Harpidetza:** Olatz Korta.  
**Hedapena:** Ixabel Bereziartua.  
**Publizitatea:** Iñigo Txintxurreta, Aloña Soraluze.  
**Argazkiak:** Alberto Elozegi.

**HELBIDEAK**  
**GIPUZKOA:** Zirkuitu ibilbidea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 37 15 45.  
 Faxak: 37 34 03 (erredakzioa)/  
 36 10 48 (komertziala).  
**BIZKAIA:** Zabalburu 2, 1. ezkerre. 48003 Bilbo. Tel.: 410 34 34.  
 Faxa: 410 37 15.  
**IPARRALDEA:** Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 47 60 00.  
 Faxa: 559 47 60 01.  
**NAFARROA:** Iratxeko Monastegia 70, 3. ezkerre. 31011 Iruñea.  
 Tel.: 17 80 78. Faxa: 17 80 77.  
**POSTA ELEKTRONIKOA:**  
 antzagraf@gm.es

**LEGE GORDAILUA:** NA 80-1963.  
**ISSN:** 0213-909X.  
**BATZORDE PAREKIDEA:** 72562 E.

**INPRIMATEGIA:** Antza, S.A.L.  
**INFORMATIKA:** A.S.P., S.A.L.

**Harpidetza sariak:**  
 Hego Euskal Herria..12.750 pezeta.  
 Ipar Euskal Herria.....685 libera.  
 Espainia.....12.750 pezeta.  
 Beste atzerriak.....16.550 pezeta.  
 Airez.....26.075 pezeta.



ZERUKO ARGIA S.A.L.  
 Ametzagaina Taldeko partaidea da

## Zumaiako kostaldean egiten ari diren astakeriez

EKAINAREN 4ean, Euskal Herriko Auzitegi Gorenak Zumaia Bizirik taldeak salatutako portu sarreraren proiektua legez kanpoko zela aitortu zuen. Zumaia Bizirik taldeak hemen laburtzen ditugun 5 irizpide hauek bete ez izana salatu zuen (hauetatik Auzitegi Gorenak lehenengo hirurak onartu ditu): 1) Portuko egitasmo bereziaren onarpen eza, udalaren arau ordezkatzaileen arabera derrigorrezkoa dena; 2) Kosta Legeak derrigortzen dituen itsaso nahiz lehorreko lur publikoan proiektuak izan zezakeen eraginari buruzko azterketarik ez aurkeztea eta proiektua jendeurrean ez azaltzea; 3) Ingurugiro eraginari buruzko azterketa eta honen adierazpen eza; 4) EAEko Lurralde Antolaketa Legearen kontra jokatzeko, eta 5) Kontratu Legearen haustea.

Dagoeneko amaiturik dauden edo ia eraikita dauden Zumaiako barrak, Itoizko urtegiak edo Nafarroako ubideak, garbi adierazten dute administrazioek legeak komeni zaizkienean bakarrik betetzen dituztela; eta herri mugimenduen salaketak seriozki eginak izaten direla. Gertatzen ari dena kontutan hartuz, deialdi hau helarazi nahi diegu epaileei: batetik, har dezatela kontutan prebentzioaren printzipioa eta irregulartasun nabariak dituzten proiektuak gelditu dituzatela. Bestetik, ingurugiro arduradunek, bete dezatela behar bezala, zorrozki, dagokien babes eta zaintze zeregina (erreza da bai legearen kontrola, ezinezkoak eta frustranteak diren milioi askoko fidantzen ordaintzak edo eta promotoreen presioa beste batzuren eskutan utzi eta ez inplikatzeko).

Zumaiako barraren obra oraindik bukatzeko dagoela gogorazi nahi dugu. Ingurugiro Sailaren erabakiak derrigortzen duenez, ekialdeko dikerako sarbidea oraindik kentzeko baitago. Beldur gara ez ote den bidexka hori Santixo

hondartzarako sarrera bezala finkatuko, Euskal Herriko itsasertzeko gune garrantzitsu hau gehiago hondatuko. Bitartean, Zumaiako kirol portuaren proiektuarekin berdin jokatzeko ari direla uste dugu, presaka jokatuz eta lege aldetik oso argi ez dauden proiektuak onartuz.

AZTIK guzti honetan izan duen jarrera agerian utzi nahi dugu. Eskatu zaizkion ingurugiro azterketak behar bezala egin beharrean, intenzio txarrez eta balorazio alderdikoak eman ditu (enpresaren zati bat Eusko Jaurlaritzarena da).

Zumaiako EAJren jokaera salatu nahi dugu. Demokrazia komeni zaien eran ulertuz eta botoen gehiengoan oinarrituz, administrazio mailan edozein arau-hauste onartu eta kirol portuaren proiektuaren kontrako herri mugimendu oro zapaltzeko prest baitago.

Zumaia Bizirik taldea, herri mugimendu bat izanik, ongi dagoela uste duena defendatzeko jendearen eguneroko mobilizapena eta eztabaidan herriaren parte hartzea positibo delakoan dago, eta hau gizarte demokratiko batean gutxienez eskatu daitekeena dela uste dugu ●

### ZUMAI A BIZIRIK TALDEA ZUMAI A

## Pastorala Baretozen

ARGIAren 1.631. zenbakian irakurri dut Ritxi Lizartzaren oharra. Landan pastorala aurkeztea pozgarri gertatu zait. Geroxeago ulertu dudanez, frantsesez izango da... «Lehen biarnoeraz egiten ziren baina aurtan frantsesez...».

Mikel Albusuk aspaldian esan zuenez, joan den mendean euskaraz ematen ziren. Haritzelharrek bere tesian emandako datuen arabera ez baita harritzekoa. Landan, Sarrantzin, euskara ez da arrotza.

Hau guztia ez esatea tamalgarrir iruditu zait. Baretozen euskarak segurki egin baitu atzera, eta ez oso aspaldi ●

### TXILLARDEGI AMASA (GIPUZKOA)

## Hiruko Txikian

### INTOLERANTZIA

Itsas trapailan bagoaz goruntz, eman eta eman ur bizian urari goiti ziabogarantz, itzuli erosoagoa amets, atzean ale sueltoak bistaritzen ditugula. Eta hara non, beheruntz, gu arnastetuka goazen bitartean, motorrontziak datoz uholde oihuka, aupaka, haizea eta itsas olatuak alde, heurrek ezarri legea errespetatu gabe, jada estropada irabazi egin balute bezala Itsasondon, Itoizen eta Irunen. Hirutan, tranpa. Eta gehiengo tranparen alde egoteak, ez du egingakoa estaltzen, arrazoina ez baita aritmetikak soilki erabaki lezakeena. Izan ere, goleadaz irabazten ohituta dagoenak noizbaiteko berdinketa nekez onartzen du. Are gu-

txiango onartuko du galtzea, nahiz eta aho betez galtzen jakin behar dela prediku estandarrez besteak hornitu. Eta Lemoiz gel-dirik egotea gutxiengoari —Barros, Medius...— zor bazaio, Itoizen Nafarroako Gobernuko Sanzkumeak bertako balizko urak ez baliatzea, eta heldu den urtetan Irungo Alardean emakumeak ere desfilatzen ikustea guztiz normala izango denean, gutxiengo kualifikatuari eman beharko zaizkio eskerrak, nahiz eta orduan, ohi bezala, oraingo gehiengo osatzen duten asko, amnesia jeta bizi gure artean gure tolerantziari esker ●

### JOXE MARI OSTOLAZA